



Txostena, obra handiaren eraikuntza- eta eraispén-hondakinen eta materialen kudeaketa-txostenaren egiaztapenari buruzkoa

113-SUST-(2017) LEAren proiektua

Aurkibidea:

I. TXOSTENAREN XEDEA	2
II. Arazoaren azterketa, lehiaren ikuspegitik.....	3
1.- EJren lege-oinarriak eta ekintzak.....	4
2. Txostenen egiaztapena lehiaren ikuspegitik	9
A. Egiaztapen-premia.....	9
B. Eusko Jaurlaritzaren interpretazio murriztailea egoera iragankorrean ..	10
a. Muga horrek sortutako lehia-arazoak	11
- Elkargoak zerbitzu-emaila gisa	11
- Elkargoen ustezko berariazkotasuna	12
- Aztertutako neurriak merkatuan izan duen eragina.....	12
b. Neurriaren premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza	13
III.- Ondorioak.....	15
Eranskina	17

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea
Natividad Goñi Urriza andrea, kidea
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea
Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

2017ko martxoaren 9an egindako bileran, Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean LEK-ak), arestian aipatutako osaera duenak, txosten hau ematea erabaki du, “obra handiko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta materialak kudeatzearen” (aurrerantzean hondakinen kudeaketaren) gaineko azkeneko txostenen egiaztapenaren inguruan¹.

¹ 112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraisketako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena; 2012ko irailaren 3ko EHAA, 171. zk. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/09/1203962a.shtml>. Bere 2. artikulua honela definitzen du obra txikia: etxe partikular baten, denda baten, bulego baten edo zerbitzuen sektoreko higiezin baten eraikuntza- edo eraispén-lana, teknika errazekoa, eraikuntza-garrantzi txikikoa eta garrantzi ekonomiko txikikoa, erabilera komuneko instalazioen bolumena eta erabilera edota etxebizitza- eta lokal-kopurua aldatzen ez duena, eta profesional tituludunen proiektu sinaturik behar ez duena. Era berean, honela definitzen da obra handia: obra txikiaren definizioan sartzen ez diren eraikuntza- eta eraispén-lanak.



I. TXOSTENAREN XEDEA

1. 2015eko ekainaren 2an, XXX jaunak sinatutako idatzi bat sartu zen, LEAren Erregistro Orokorrean.

Idazkiaren bidez, LEAri eskatzen zion txosten bat eman zedin edo espediente bati hasiera eman ziezaion Eusko Jaurlaritzak 407/2013 Dekretuaren (aurrerantzean, Galarazpen Dekretuaren) bidez profesionalen elkargoei esleitu dien obra handiko lanen eraikuntza-hondakinen eta -materialen azken egiaztapen-txostenak emateko eskumenarekin izan dezakeen balizko bateraezintasunaren inguruan².

Aipatu galarazpen-dekretuaren aurrean, eskatzaileak honako jarduerak egin zituen:

Berraztertze-errekurtsoa jartzea. 2013ko azaroaren 19ko Gobernu Kontseilu Akordioak gaitzetsi egin du errekurtso hori³.

-Ofizioz berrikusteko eskaera⁴. Hori ere gaitzetsi egin da.

Era berean, eskatzaileak eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Ingurumen Lankidetzarako Erakundearen Erregistroan izena ematea I. mailako Ingurumen Lankidetzarako Erakunde moduan⁵.

2. Planteatutako kontu hori lotzen da kudeaketa-hondakinen txostenak egiaztatzeko premiarekin berarekin, eta exijentzia hori existituz gero, zerbitzua emateko ahalmena izango luketen pertsonekin.

Horregatik, lehiakortasuna sustatzeko txosten hau egiten da, eskatzaileak planteatutako kontsultatik harago doana⁶.

² 407/2013 Dekretua, irailaren 10ekoa, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren behin behineko galarazpenaren ingurukoa, zeinaren bidez arautzen baita eraikuntza eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa. 2013ko urriaren 1eko EHAA, 187 zk. Eskuragarri hemen <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2013/10/1304136a.pdf>.

³ 2013ko azaroaren 19ko Gobernu Kontseilu Akordioa, zeinak ebazten baitu XXX jaunak 407/2013 Dekretuaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa.

⁴ Ofizioz berrikusteko eskaera gaitzetsi egin du 2014ko abenduaren 10ean Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Administrazioaren zuzendariak.

⁵ XXX jaunak 1. mailako Ingurumen Lankidetzarako Erakunde moduan eman du izena, 16809/2013/00000529 kodearekin.

⁶ Ikusi Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen otsailaren 2ko 1/2012 3.3.e) artikulua; 2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.. Eskuragarri hemen <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/02/1200646a.shtml>.



II. Arazoaren azterketa, lehiaren ikuspegitik

3. Auzitegi Gorenaren etengabeko jurisprudentzia-dotrinak adierazten du Administrazioak Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta, oro har, lehia askearen eremu desberdinak bermatzen dituen legeria bete behar dituela⁷. Hala ere, hainbat supozizio existitzen dira, non, modu justifikatuan, administrazioak merkatu batean sartzeko oztopoak onartu edo baita sortu ere egin ditzakeen⁸. Oztopo horiek justifikatu egiten direla onartzeko, hainbat baldintza bildu behar dituzte, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko 17/2009 Legearen arabera⁹:

- Bereizkeriarik ez egitea naziotasunagatik edo establezimenduaren kokapenagatik edo gizarte egoitzagatik;
- Beharra: ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumenaren babesagatik justifikatuta egotea, edo natura baliabideen eskasiagatik edo ezin nahasizko eragozpen teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatua bada.
- Proporzionaltasuna: mugaketa helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izatea, ez dagoelako emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri zabalgorik.

Bereizkeriarik ezaren, beharraren eta proporzionaltasunaren eskakizunak betetzen ez dituzten legezko oztopoak egotea eragozpen bat da zerbitzuak oztoporik gabe emateko, eta, beraz, eragozpen bat da eragindako merkatuan lehia efektiboari eusteko.

Sarrerako oztopoek eragin negatiboak sortzen dituzte ezartzen diren ekonomietan, lehiaren tentsioa handitu dezaketen operadore berrien sarrera sustatzen ez dutelako, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko baldintza hobekak ez direlako sortzen. Merkatuetan sarrerako oztoporik ez egoteak enpleguak sortzea, berrikuntza eta lehiaren hobekuntza sustatzen dute.

⁷ Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. sekzioa. (BK 5763/2006). Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2007ko ekainaren 19koa (BK 9.449/2.004): Auzitegi Gorenaren epaia. Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, 2008ko azaroaren 4koa (BK 5837/2005).

⁸ Sarrerako barrerak dira operadore berriak merkatu zehatz batean sartzea etsiarazten edo zuzenean galarazten duten zailtasun eta kostu guztiak. LEHIAREN DEFENTSAKO AUZITEGIA, *Kontsentrazio Ekonomikoko Espedientearen txostena, Madril*, 2005eko irailaren 26a, C89/05 *Igualatorios Médicos*, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/expedientes.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=&p=0&numero=C89/05&ambitos=Concentraciones&estado=0§or=0&av=1>.

⁹ Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko 2009ko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa. Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen arabera, BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10koa.



1.- EJren lege-oinarriak eta ekintzak

4. 2011. urtean, Kutsatutako Hondakinen eta Lurzoruen estatuko Legeak oinarritzko moduan arautzen du hondakinen kudeaketa, barne araudira eramaten baitu Hondakinen gaineko zuzentaraua¹⁰. Lortu nahi dena zera da: hondakinak sortzea prebenitzea, hondakinak gizakiaren osasunean eta ingurumenean sor ditzaketen eragin kaltegarriak arintzea eta baliabideak erabiltzean eraginkortasuna hobetzea.

Arauk autonomia-erkidegoei esleitzen die hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak baimentzeko, zaintzeko, ikuskatzeko eta zigortzeko aukera¹¹. Oinarritzko izaera berarekin, 105/2008 Errege Dekretuak berak eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautu zuen¹².

5. 1998an, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak hondakinak arautu zituen, besteak beste¹³. Lege horrek ezartzen ditu gai horren inguruan autonomia-erkidegoaren politika eraentzen duten printzipioak (67. eta 69. artikulua).

- a) Prebentzioa eta jatorrian minimizatzea, produkzioa eta kaltegarritasuna murriztuz
- b) Berrerabiltzea, birziklatzea eta baliozkotzeko nahiz zikloak itxeko beste edozein era bultzatzea.
- c) Balioztatu ezin diren hondakinak era egokian ezabatzea eta behar diren bitartekoak ezartzea.

¹⁰ 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. 2011ko uztailaren 29ko BOE, 181. zk. Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-13046&p=20121220&tn=2>.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentaraua. DOL 2008ko azaroaren 22a, 312. zk. Eskuragarri hemen: <http://www.boe.es/doue/2006/376/L00036-00068.pdf>.

¹¹ Ikusi hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko Legearen 12.4 artikulua. Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 43. artikulua ezartzen du lege horretan eta lege hori garatzeko arauetan aurreikusitakoa zuzen betetzen dela zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko funtzioak administrazio-agintaritzak gauzatuko dituela hondakinen eta herritarren segurtasun gaitan dagozkion eskumen-eremuan.

¹² 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza eta eraiketako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena. BOE, 38. zk, 2008ko otsailaren 13koa. Testu bateratua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2008-2486>. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinei dagokienez, arauak erregulatzen ditu hondakin-sortzailearen obligazioak (4. artikulua); hondakin-educitzailearen obligazioak (5. artikulua); hondakin-kudeatzailearen obligazio orokorrak (7. artikulua); eta Administrazio Publiko eskumendunek produkzioaren, jabetzaren eta kudeaketaren gainean egin beharreko kontrol-erregimena.

¹³ 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko. EHAA, 59. zk, 1989ko martxoaren 27koa. Eskuragarri hemen <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1998/03/9801344a.pdf>.



Arauren 106. artikulua administrazioei ematen die beren eskumen-eremuen barruan eta zuzenean edo hirugarrenen bidez, EAEn errotutako jardueren inguruko **zaintza- eta kontrol-ahalmenak**.

Zaintza hirugarrenen bidez eginez gero (106.3), administrazioek ahalmenak eman ahalko dizkie behar den moduan egiaztatutako entitate publikoei edo pribatuei. Ikusiko dugu moduan, EJK sistema horren alde egin du. Araudiaren bidez ezarri behar dira garatu beharreko funtzioak eta funtzio horiek gauzatzeko baldintzak¹⁴.

2012an, EJK **Hondakinak arautzeko Dekretua**¹⁵ onartu zuen. Arauak erregulatu ditu obra handiaren ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta materialen ekoizleen obligazioak, lizentzia izan edo ez:

- Obraren oinarriko proiektuan eta gauzatze-proiektuan **hondakinak eta eraikuntza- eta eraispén-materialen kudeaketari buruzko azterketa** bat sartzea. Dekretu honen I. eranskinean adierazten den gutxieneko edukia izan behar du azterketa horrek. Hondakinak kudeaketari buruzko azterketa **persona eskudun batek sinatu behar du, eta dagokion elkargo profesionalaren oniritzia jaso behar du**.
- **Obretan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak dekretu honetan —eta, bereziki, hondakinak kudeatzeko azterketan— jasotako baldintzetan kudeatu direla frogatzen duen dokumentazioa izatea**. Urte natural bakoitzari dagokion dokumentazioa hurrengo bost urteetan gorde behar da.
- Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta materialen kudeaketari buruzko **azken txostena** egin behar da, dekretu honen 6. artikuluan eta III. eranskinean jasotako edukiarekin eta irismenarekin. Txostena **obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatu** behar du, eta ingurumen-organismoak egiaztatutako erakunde independente batek egiaztatu behar du¹⁶.
- Hala badagokio, obran erabili diren hondakinak balorizazioaren bidez eskuratutako bigarren mailako materialak jaso eta haien kantitateak zehaztu behar dira Eraikinaren Liburuan.

¹⁴ Hondakinei eta Lurzoru kutsatuei buruzko Legeak ere gauza bera egiten du, hau da, bere 43. artikuluan ezartzen du zaintza-, ikuskaritza- eta kontrol-funtzioak gauzatu ahalko direla behar den moduan aintzatetsitako entitate kolaboratzaileen laguntzarekin, ezarri behar zaizkien arauen arabera.

¹⁵ Aurrerago aipatutako 112/2012 Dekretua da. Arau hori indarrean sartu zen argitaratu eta hurrengo egunean, 2012ko irailaren 4an. (Seigarren azken xedapena).

¹⁶ Obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatutako txostena honako dokumentazio honekin batera aurkeztu behar da: a) Kutsatu gabeko lurak eta arroak betegarri bat egiteko erabili direnean, dagokion Udalaren lizentziaren kopia aurkeztu beharko da hori baimentzeko edo organo-eskumendunaren baimenaren kopia, azpiegitura linealen obraren kasuan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren araudian ezarritakoaren arabera, zeinak arautzen baitu hondakinak zabortegean botatzearen bidez ezabatzea eta betegarrien betearazpena; b) Baimendutako kudeatzaileek edo kutsatu gabeko lurak eta arroak jaso dituzten baimendutako betegarrien titularrek isuritako hondakinak zuzen kudeatu direla egiaztatzen dituzten ziurtagiriak; c) Baliozkotutako hondakinak eta tokian bertan erabilitako eraikuntza- eta eraispén-materialen kopuruaren eta erabileraren zinpeko deklarazioa.



Gainera, obra handiak lizentzia izan behar izanez gero, **fidantza** bat ezarri beharko da obra handiaren ondoriozko eraikuntza eta eraispén-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko¹⁷.

Hondakinen Dekretu arautzaileak modu iragankorrean, eta entitateak egiaztatze sistema izan arte, zera ezartzen da, **Elkargo Ofizialek beteko dutela zeregin hori**, txosten horiek kutsatutako lurzoruen arloak egiaztatutako entitateek egin ezean (Hondakinen Dekretu arautzailearen Bigarren xedapen iragankorra).

6. Era berean, 2012an, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuz, EJK Ingurumen Lankidetzaren Entitateen araudi erregulatzailerak onartu zuen (**ILE Dekretua**), entitate independenteak izenekoak, hondakinen Dekretu erregulatzaileraren arabera¹⁸. ILE Dekretu horrek hondakinak arautzeko Dekretuaren 6. artikulua aldatzen du, zeinak ezartzen baitu zuzendaritza fakultatiboak emandako txostena **ingurumeneko lankidetzaren entitate batek egiaztatu behar duela (ILE)**, hau da, I. mailako entitatea edo Ingurumeneko Balidazio Entitatea, Dekretuaren arabera¹⁹. ILE Dekretuaren 6. artikulua ezartzen du ingurumen lankidetzaren entitateek baliabide

¹⁷ Betegarri baten kasuan, hondakinak ondo kudeatzen dira dagokion udalak lizentzia emanez. Baita baimendutako hondakin-kudeatzaileek emandako dagozkion ziurtagirien bidez ere. Baliozkotutako hondakinen eta tokian bertan erabilgaitako eraikuntza- eta eraispén-materialen kasuan, obraren zuzendari teknikoak zinpeko deklarazio bat egin behar du. Hondakinen balorizazioaren kasuan, hondakinen Dekretu arautzaileak adierazten du balorizazio-jarduerak gauzatzeko Ingurumen Organoak baimena eman behar duela alde aurretik (11.1. artikulua). Era berean, eraikuntza eta eraispén kudeatzeko erabiltzen diren instalazio mugikorren jabeek baimen bat lortu beharko dute horiek erabiltzeko ahalmena emango dena. Dena den, balorizazio-jarduerak egiten dituztenak instalazio mugikorraren jabeak berak direnean, baimen bakarra emango da. Baimendutako hondakinen kudeatzaileek egiten duten moduan, balorizaziorako erakunde baimenduek dokumentuen bidez egiaztatu ahalgo dute ziurtagiri bidez, balorizatutako hondakin-kopurua eta -erabilera.

¹⁸ Urriaren 16ko 212/2012 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira ingurumen-lankidetzako erakundeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen baita. 2012ko azaroaren 21eko EHAA, 225. zk. Eskuragarri hemen <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/11/1205126a.shtml>. Dekretu honek 112/2012 Dekretuaren 6. artikulua aldatzen du, eta zehazten du egiaztapena ingurumeneko lankidetzaren entitate baten bidez egin beharko dela.

¹⁹ ILE Dekretuak bi ingurumen lankidetzaren entitate bereizten ditu, ingurumen-administrazioarekin duten lankidetzaren mailaren arabera. ILEen Dekretu arautzailearen 4.2 artikulua entitate horiek egiten dituzten jarduerak jasotzen ditu: ingurumen baimenak eskatzeko, baimenak berritzeko, diru-laguntzen izapideak egiteko eta jarduerak egiaztatze baldintzen eta beharrezko datuen agiriak baliozkotzea. Jarduera gauzatzen den sailean egiaztatzea ekipoek edota instalazioek baimen, administrazio-izapide edo ezarri beharreko ingurumen-araudian ezarritako baldintzak betetzen dituztela. ILEen Dekretu arautzailearen 4.2.b artikulua entitate horiek, alegia, Ingurumen Kontrolerako Entitateak gauzatzen dituzten jarduerak ezartzen ditu: Laginak hartzea, eta neurketak eta analisiak egitea, jardueraren bizitza erabilgarriaren zehar egin beharreko hainbat funtzionamendu-kontrol eta -egiaztapen ebaluatzeak. Erakunde horiek beren jarduerak egingo dituzte, instalazioaren edo jardueraren titularrak, edo administrazioak aipatutako ingurumen-prozedurak direla eta, aurrez eskaera eginda badu.



hori erabiltzeko obligazioa dutela (7. artikuluko) hainbat prozeduratan, besteak beste arriskutsuak diren edo ez diren hondakinen kudeaketan.

ILEei esleitutako funtzioak une oro kontrola eta egiazta ditzake EAeko ingurumen gaitan eskumenak dituen sailak, nahiz eta haiek beren irizpenen eta jardueren arduradunak izan²⁰.

Kudeaketa-txostenen egiaztatzeak esan nahi du ebaluazio bat egiten dela -eta "ebaluazio hori gauzatzeko ez da ikuskaritza-, neurketa- eta entsegu-ekiporik erabili behar"-, ikusteko ea obraren zuzendari teknikoaren txostenak bat egiten duen baimenean eta lizentzian ezarritako baldintzekin, indarrean dagoen ingurumen-legeriaren arabera²¹.

Txostenak egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu behar dira: eskaera bat obra identifikatzeko dokumentazioarekin batera; "obraren datu orokorren egiaztapena obraren kokapenaren eta obra-motaren arabera"; eta "datu kuantitatiboaren egiaztapena, horien koherentziari eta justifikazio dokumentalari dagokionez"²².

ILE Dekretuak, egiaztapenak egiteko, ILEen Erregistro batean izena ematea eta honako baldintza hauek betetzea eskatzen zuen²³:

- Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa duten eta hondakinen gaien inguruko ikuskaritzan, aholkularitzan edo auditoretzan 5 urteko esperientzia duten langileak
- kualifikaziodun langileak, balorazio-jarduerak egiten dituen langileen barne-kualifikazioaren prozeduraren arabera: Unibertsitateko titulazio teknikoa edo zientifikoa duten eta hondakinen gaien inguruan ikuskaritzan, aholkularitzan edo auditoretzan 2 urteko esperientzia duten langileak. 3 espedienteren egiaztapenetan eta baliozkotzeetan behatzaile gisa parte hartu izana.

7. 2013ko urrian ILE Dekretua behin behinean eten zen (Galarazpen Dekretu izenekoaren bidez)²⁴. Hori hala egitean, eten egiten da sustatzaileek ILEetara joateko duten obligazioa egiaztapenak egiteko²⁵. Arauak adierazten du egiaztapen

²⁰ Ikusi ILE Dekretuaren 20. artikulua.

²¹ Ikusi ILE Dekretuaren 2. artikulua.

²² INGURUMEN SAILA *Elkargo ofizialek eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketarako azken txostenak egiaztatzeko jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz, 2015. Eskuragarri hemen http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/rcd/es_def/adjuntos/directricesRCDs.pdf.

²³ ILE Dekretuaren Zioen Azalpenak ez du justifikatzen exijitutako baldintzak exijitzea.

²⁴ Aurrez aipatutako galarazpen Dekretua.

²⁵ Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeak, beren 60. artikulua arabera, ezartzen du Dekretuaren forma hartuko dutela izaera orokorreko administrazio-xedapenek, eta dagokionean,



horiek dagozkion Elkargo Ofizialek egin **ahalko dituztela**, kutsatutako lurzoru gaietan egiaztatutako entitateek egin ezean²⁶.

Txosten honen erreklamatazaileak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen Dekretu honen aurka, eta Gobernu Kontseiluak errekurtso hori gaitzetsi zuen 2013ko azaroaren 19ko akordio baten bidez, honako hau adieraziz bere zuzenbideko oinarrietan:

“Irailaren 10eko 407/2013 Dekretuaren bidez adostutako galarazpenak lehengo egoerara eramaten du soilik eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketarekin lotutako txostenak egiaztatzearen gaineko araudia, hau da, **Elkargo Ofizialei dagokie aipatu txostenak egiaztatzeko jarduerak gauzatzea. Haiei zegokien, baita ere, jarduera horiek gauzatzea, bi dekretu hauen arteko denboraldian: ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua indarrean sartzen denetik -zeinaren bidez arautzen baita eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa-, urriaren 16ko 212/2012 Dekretua indarrean sartzen denera arte -zeinaren bidez ingurumen lankidetzako entitateak arautzen baitira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Entitateen Erregistroa sortzen baita-**”.

8. 2014an EJK Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokor bat lantzeko prozedura hasi zuen; baina txosten hau eman zen unean ez da jaso bideratu beharreko proiektuaren zirriborrorik.

9. 2015ean EJK Elkargo Ofizialentzako zenbait gidalero onartu zituen, obra handien eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta materialen kudeaketarako azken txostenak egiaztatzeko²⁷. Gidalero horietan honako hau aipatzen da:

“Joan den 2013ko urriaren 1ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 407/2013 Dekretua, irailaren 10ekoa argitaratu zen, zeinak behin behinean ezeztatzen baitu urriaren 16ko 212/2012 Dekretua; **hortaz, aurreko egoerara bueltatzen da, non kudeaketaren azken txostenak egiaztatzeko lanak Elkargo Ofizialen eskuetan erortzen ziren**”.

Sailak berak, bere webgunean, hondakinen Dekretu arautzailea aipatzen du, eta ezartzen du entitate independenteak egiaztatzeko sistema bat eskuratzen denera arte, “dagozkion Elkargo Ofizialek **egingo** dutela lan hori, kutsatutako lurzoru-gaietan egiaztatutako entitateek egin ezean”.

baita Jaurlaritzako akordioek ere, zeinak Lehendakariak eta proposamenari dagokion Kontseilariak edo Kontseilariak sinatuko baitute.

²⁶ 112/2012 Dekretuaren Bigarren Xedapen Iragankorrak zera ezartzen du, Dekretu honen 6. artikuluan ezarritako kudeaketako amaierako txostenak egiaztatutako dituen erakunde independenteen egiaztatze-sistema bat ez dagoen bitartean, dagozkion elkargo ofizialek egingo dute lan hori, salbu txosten horiek kutsatutako lurzoruaren egiaztaturiko entitateek egiten badituzte.

²⁷ INGURUMEN SAILA *Elkargo ofizialek eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketarako azken txostenak egiaztatzeko jarraibideak*. Vitoria-Gasteiz, 2015. Eskuragarri hemen http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/rcd/es_def/adjuntos/directricesRCDs.pdf.



Webgune horrek honako elkargo hauek zerrendatzen ditu²⁸:

- Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
- Arabako Ingeniari Industrialen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala
- Gipuzkoako Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala
- Arabako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala
- Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolegioa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Lanetako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala

2. Txostenen egiaztapena lehiaren ikuspegitik

A. Egiaztapen-premia

10. Obra-zuzendariaren hondakinen gaineko txostena egiaztatzen denean zerbitzu bat ematen da, zeina araudiaren aginduaren bidez egiten baita, eta eraikuntza-hondakinak sortu dituenaren eskaeraren bidez²⁹. Baldintza hori ezarrita, administrazioak merkatu bat sortzen du obra-zuzendariak egindako hondakinen kudeaketa-txostenak egiaztatzeko, eta aztertu behar den lehenengo kontua, hain zuzen ere, da ea egiaztapen hori zer neurritan den premiazkoa.

11. Aztertu dugun moduan, obra batek hondakinak sortzen dituenean, administrazioaren aurrean egiaztatu behar da kudeaketa egokia izan duela, obraren zuzendaritza fakultatiboak egindako txosten baten eta hirugarren baten obraren gainean egindako egiaztapenaren bidez. Fidantza bat jarri behar izanez gero, fidantza hori bueltatzeko, hondakinak zuzen kudeatu beharko dira.

²⁸ EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN SAILA Obra handiko eraikuntza- eta eraispentxostenen gaineko informazioa. (Azkeneko aldaketa, 2015eko uztailaren 31). Eskuragarri hemen: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informacion/residuos-de-construccion-y-demolicion/r49-4892/es/> (Azkeneko kontsulta 2017ko martxoaren 1ean).

²⁹ Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko Legeak, bere 3. artikuluan, honela definitzen du "Zerbitzu" kontzeptua: norbere kontuko edozer jardura ekonomiko, zeina, normalean, ordainketa baten truke ematen baita, eta Europako Erkidegoaren Tratatuaren 50. artikuluan jasotzen baita (EBFTren 57. egungo artikulua). Era berean, «Mailegatzaile» kontzeptua honela definitzen du: edozer pertsona fisiko, edozer estatu kideko nazionalitatea duena edo Espainian lege-bizilekua duena, edo Estatu kide baten legediaren arabera osatutako edozer pertsona juridiko edo edozer entitate, zeinaren egoitza sozial edo jardura-zentro nagusia Europar Batasunaren barruan dagoena eta zerbitzu bat eskaintzen edo ematen duena.

Ikusi Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 2002ko otsailaren 19ko epaia, gai honen inguruan: C-309/99, JCJ Wouters eta beste Algemene Raad de Nederlandse Orde van Advocaten entitatearen aurka.



Egiaztapen-lanak egingo dira obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatzen duen hondakinen azken txostenaren gainean.

12. Hala, arrazoizkoa denez planteatzea administrazioak egiazta dezala obra-zuzendaritzak aurkeztutako dokumentuak ingurumena babesteko exijentziak betetzen dituela, Jaurlaritzak baloratu behar du zer neurritan den proportziozkoa beste partikular baten esku-hartzea exijitzea, zeinak, funtsean, dokumentuak berrikusteko kontrol-funtzioa beteko baitu. Ez dago tresnarik ILEen jardueraren independentzia bermatuko duenik. Titulazio, esperientzia eta “personal” baldintzek, berez, ez dute bermatzen egiaztapena zuzen egingo denik.

13. ILEetara jotzeko obligazioa ezeztatzen duen Galarazpen Dekretua bera onartzeak ulertarazi dezake ezarritako exijentziak ez direla proportziozkoak eta justifikatu gabeko oztupoak sortzen dituela operadoreentzat.

Ingurumen legeria autonomiko konparatuan ez da jasotzen -EAEn izan ezik-ekoizleak obligazioa duenik obra handiko eraikuntza-hondakinak zuzen kudeatu dituela egiaztatzeko, entitate independente baten bidez egiaztatutako borondatezko txosten baten bidez³⁰.

Horregatik, ILE Dekretuaren ezarpena galaraztea erabaki egokia izango litzateke, izapide errepikakorrak ezabatuko balitu eta beharrezkoak ez diren kostuak murriztuko balitu hondakin-sortzaileentzat.

Hala ere, ikus dezagun ea sortutako egoerak helburu hauek betetzen dituen.

B. Eusko Jaurlaritzaren interpretazio murriztailea egoera iragankorren

14. Gogora dezagun Galarazpen Dekretuak desagerrarazi egiten duela ekoizleek ILEak erabiltzeko duten obligazioa, eta ezartzen duela dagozkion Elkargo Ofizialek azken kudeaketa txostenak egiaztatu **ahalko** dituztela³¹. Horren inguruan gauza bi zehaztu behar dira. Bat formala eta bestea funtsekoa.

³⁰ Andaluzia, Aragoi, Kanariak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura, Errioxa, Madril, Nafarroa, Murtziako Eskualdea edo Valentziako Erkidegoa: ikusi horien arauen inguruko erreferentzia txosten honen Eranskinean jasota.

³¹ Hondakinak kudeatzeko Dekretuaren Bigarren Xedapen Iragankorrak zera ezartzen du, Dekretu honen 6. artikuluan ezarritako kudeaketako amaierako txostenak egiaztatuko dituen erakunde independenteen egiaztatze-sistema bat ez dagoen bitartean, dagozkion elkargo ofizialek egingo dutela lan hori, salbu txosten horiek kutsatutako lurzoruetan egiaztaturiko entitateek egiten badituzte. Xedapen Iragankor horrek indarraldia galdu zuen 2013ko urtarrilaren 1ean sortutako Ingurumen Lankidetzaren Entitateak arautzen dituen Dekretua indarrean sartu zenean.



15. Ikuspegi material batetik, Galarazpen Dekretuak **elkargo** profesionaleri ematen die **ahalmena** kudeaketa-txostenak egiaztatzeko, kolegiatzeko eskatzen diren titulazioez gain baldintza gehiago eskatu gabe. Kolegiatzeko gaitzen duten titulazioez gain beste baldintza batzuk ez eskatzeak, honelako suposizio batean, ez da soilik positiboa; aitzitik, egiazta dezake ILE gisa erregistratzeko eta jarduteko ezarri ziren exijentziak ez zirela beharrezkoak.

Hala ere, EJK hainbat jarduera gauzatu ditu (Gidalerroak, jardueren antolaketa, berraztertze-errekurtsoa, Ingurumen Saileko webgunean zerbitzua eman dezaketen Elkargoen informazioa), zeinaren bidez ondorioztatzen baita EJK soilik onartzen duela egiaztapen hori Elkargoek berariaz egiteko aukera.

Berariazko esleipen horrek merkatua ixten die enpresei edo profesionali.

Gainera, gidalerroek gomendio bat ezartzen dute, eta gomendio horren arabera, nahiz eta edozer obra-motaren inguruko hondakinen kudeaketako azken txostena aipatutako edozer elkargok egiazta dezakeen, espezialitate-printzipioa jarraitu beharko litzateke, Eraikuntzaren Antolamenduaren 38/99 Legean aipatutako eraikuntza-moten arabera ³².

Horrela, Jaurlaritzak merkatu-banaketa bat gomendatuko luke zerbitzua enkargatzen zaien Elkargoen beren artean, nahiz eta eskaera hala bideratzeko justifikaziorik ez izan, eta berez, lehiaren aurkakoa izan daitekeen.

a. Muga horrek sortutako lehia-arazoak

- Elkargoak zerbitzu-emaille gisa

16. Elkargo profesionalak, elkarleen gisa, lehiaren araudia bete behar dute ³³.

Elkargo profesionalen Lege honek (EPLk), bere 1. artikuluan, korporazio horien honako funtsezko helburu hauek ezartzen ditu: profesioak gauzatzearen gaineko antolamendua; profesioek erakundeetan berariaz ordezkatuak izateko aukera izatea, derrigorrez kolegiatu behar direnean; kolegiatuen interes profesionalak defendatzea; eta kolegiatuen zerbitzuetako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen

³² Azaroaren 5eko 38/1999 Legea, Eraikuntzen Antolamenduari buruzkoa. azaroaren 26ko BOE, 266. zk. Testu bateratua eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1999-21567&p=20150715&tn=1p>.

³³ Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1991ko apirilaren 23koa, gai honekin: C-41/90, Höfner eta Elser, Rec. I-1979. or., 2 1. atala. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1995eko azaroaren 16koa, gai honekin: C-244/94, Fédération française des sociétés d'assurance eta beste, Rec. I-4013. or., 14. atala. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaia, 1997ko abenduaren 11koa, gai honekin: C-55/96, Job Centre, «Job Centre II», Rec. I-7119. or., 21. atala.



interesak babestea³⁴. Beraz, Kolegiatuen funtzioen artean ez da aurkitzen zerbitzu profesionalak emateko aukerarik, eta horrek, berez, lehia-arazoak sortzen ditu³⁵.

- Elkargoen ustezko berariazkotasuna

17. Administrazioak ez ditu soilik elkargoak gaitzen zerbitzu bat eman dezaten. Aitzitik, berariazko gaitasuna ematen diete de facto, eta merkatutik gaitasun teknikoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak kanporatzen dituzte. Gainera, horietako batzuek, errekurtsogilearen moduan, hainbat baldintza betetzen dituzte; baina baldintza horiek ez direnez beharrezkotzat hartu, EJK berak egiaztapena egiteko ezarri zuen ILE Dekretua galarazi da.

Merkatuaren kanporatze horrek lege-oinarri bat ez izateaz gain, hainbat disfuntzio sortzen ditu merkatuan eta hainbat galera erabiltzaileen interesetan.

- Aztertutako neurriak merkatuan izan duen eragina

18. LEAk informazioa eskatu die EJren webgunean jasotako profesionalen elkargoei, baita honako hauei ere:

- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ordezkariak);
- Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala eta

³⁴ 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionaleri buruzkoa. BOE, 40. zk, 1974ko otsailaren 15ekoa eta Espainiakoa, eta 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa, 2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk., gero beste lege hauek aldatua: 39/2010 Legeak, abenduaren 22koak, BOE-A-2010-19703; 2/2011 Legeak, martxoaren 4koak, BOE-A-2011-4117; eta 3/2013 Legeak, ekainaren 4koak, BOE-A-2013-5940. Testu bateratua eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, 110/13 Araudi Proiektuaren Txostenak, 2013ko azaroaren 13ko Zerbitzu eta Elkargo Profesionalen Legearen aurreproiektuaren ingurukoak, gomendatzen du aurreproiektuan berariaz jasotzea Elkargoek zerbitzuen merkatuan beren kolegiatuekin lehiatzeko galarazpena. Hain zuzen ere, 34. artikuluan (Elkargoen funtzioen ingurukoan) gomendatzen da berariaz jasotzea desagertutako Lehiaren Batzorde Nazionalak hainbat IPNtan gomendatutako galarazpena, zeinaren arabera Elkargoek ez baitute zerbitzurik eman behar merkatuan beren kolegiatuekin lehian. 29. eta 30. or. Eskuragarri hemen: <https://www.cnmc.es/es-es/cnmc/ficha.aspx?num=IPN%20110/13&ambito=Informes%20de%20Propuestas%20Normativas>; Era berean, ikusi, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA, *Euskadiko industria-adarreko Peritu Batzordearen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Ingeniaritzan Graduatuen Estatutuen gaineko txostenak eta Arabako Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargoko Estatutuen gaineko Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.* Eskuragarri hemen: http://www.competencia.euskadi.eus/z02-contprof/es/contenidos/informacion/informes/es_informes/informes.html#informes_consejo

³⁵ EPLak (5.c artikuluan) onartzen du Elkargoek gauzatu ditzaketela administrazioek eskatutako funtzioak. Ikusi dugun moduan, hau ez da azterlanaren xedea. Izan ere, Elkargoek hondakinen ekizilei ematen diete zerbitzua.



- Arabako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala.

Ez da jaso Eusko Jaurlaritzak zergatik baztertu duen bere webgunetik elkargo horiek, zeinak, indarrean dagoen araudiaren arabera, zerbitzua eman ahalko bailukete dagokion webgunean jasotzen diren gainerakoekin lehian.

19. Galarazpen Dekretua ezarri daitekeenez gero, kontsultatutako Elkargoek honako jarduera hauek sortu dituzte:

ERAIKUNTZAREN HONDAKINAK KUDEATZEKO TXOSTENAK EGIAZTATZEA			
ELKARGO PROFESIONALAK	PREZIOAK (€)	EGIAZTAPEN KOPURUA	
EUSKADIKO PORTU, UBIDE ETA BIDEETAKO INGENIARIEN KOLEJIOA	120,00	1	2
	300,00	1	
BIZKAIKO INGENIARI INDUSTRIALEN ELKARGO OFIZIALA	20,00etik 40,00ra	16	36
	41,00etik 77,00ra	17	
	100,00etik 245,00ra	3	
BIZKAIKO APARAILARI ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGO OFIZIALA	40,00etik 200,00era	29	48
	201,00etik 600,00era	11	
	1.000,00etik 2.000,00ra	3	
	2.000,00etik 3.000,00ra	4	
	6.969,00	1	
		Guztira	86

Elkargoek egiaztapenak egin dituzte bere langileekin. Ez da ezarri zer modutara aukeratu diren profesionalak.

Ez da ezarri lana enkargatu zaien profesionalek ILE Dekretuak exijitutako eta txostenaren errekeritzaileak egiaztatutako baldintzak betetzen dituzten.

Era berean, ez da argi geratu egiaztapen-lan horrek nola finkatu dituen prezioak (gogora dezagun obraren zuzendari fakultatiboak egindako azken txostenean jasotako informazioaren egiaztapena dela).

Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargoak adierazi du 2016rako prezioa kalkulatu duela, betearazpen materialaren aurrekontuari milako 0,4 ezarriz, koefiziente murriztaileen bidez, zeinak handitzen baitira hura handitzen den heinean, eta egiaztapen bakoitzeko 60 euroko minimo bat ezarriz. Prezioa finkatzeko datuak existitzen diren kasu bakarrean, minimo bat ezartzen da eta obraren aurrekontuaren arabera ehuneko bat jartzen da, egindako lana kontuan izan ordez.

Praktika biak dira eztabaidagarriak lehiaren ikuspuntutik.

Horietako ezein ez litzateke sortuko lan horiek gaitasuna duten operadore ekonomikoek egingo balute. Izan ere, azken horiek, bezeroengatik lehian izango liratekeenez, eskaintza erakargarriak diseinatuko liekete.

b. Neurriaren premia, proportzionaltasuna eta diskriminaziorik eza

20. Elkargoek egiaztapenak egin ditzaten *de facto* berariazkotasun bat ezartzea oztopo bat da zerbitzuak ematen hasteko eta hori Zuzenbidearen arabera izateko, honako baldintza hauek gertatu beharko lirateke: premia-baldintza -interes



orokorreko arrazoi nagusi bategatik justifikatuta dagoelako-, lortu nahi den objektuaren proportzionaltasun-baldintza eta diskriminaziorik ezaren baldintza³⁶.

21. Premia baloratu behar da pa neurri murriztaileak lortu nahi duen interes publikoaren arabera.

Eraikuntza-hondakinak zuzen kudeatzea ingurumena babesteko helburu bat da, zalantzarik gabe. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren ustez, helburu hori da zerbitzuak emateko askatasunari murrizketak ezartzea justifika dezakeen interes orokorreko arrazoietakoa bat³⁷. Hala ere, ingurumena aipatzeak, soilik, ez du justifikatzen zerbitzuak emateko askatasunari edozer muga jartzea. Murrizketaren eta ingurumena babesteko helburua lortzearen artean kausa-efektu erlazioa egiaztatu behar da.

Galarazpen Dekretuaren Zioen Azalpenak neurria justifikatzen du:

“...aipatu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotako xedapenen ezarpenak agerian utzi du hausnartu egin behar dela jakiteko mekanismo horiek zenbateraino behar diren ingurumen-administrazioak azkarrago funtziona dezan, eta ondorioz, ingurumen-araudi sektorialean araututako prozeduren sustatzaileei mekanismo horien pisu ekonomikoa egokitu dakien”³⁸.

Beraz, onartu da profesional independente batek egiaztatzeko premia berak hausnarketa bat egitea merezi duela, eta horrek ILE Dekretua galaraztea justifikatzea duela.

³⁶ Ikus zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko legearen 5. eta 9. artikulua.

³⁷ Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren epaia, 2010eko azaroaren 18koa, gai honekin: C-458/08, Batzordea/Portugal.

³⁸ Gauza bera esan daiteke Eusko Jaurlaritzaren 2013ko azaroaren 19ko Kontseilu Akordioaz, zeinak eskatzaileak jarritako berraztertze-errekurtsoa ebazten baitu Galarazpen Dekretuaren aurka, honako hau esaten duenean: “(.....) sustatzaileek, egun, ingurumen-lankidetzako entitate baten zerbitzuak erabili behar dituzte, nahiz eta etorkizunean obligazio hori ez izan; hortaz, sustatzaile horiei sor dakien tratamendu berezile bat saihesteko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak onartu zuen beharrezkoa zela berehalako neurriak hartzea, egoera horiek ahal den neurrian saihesteko. Alde horretatik, kontuan izanik hausnarketa denborarekin eta lasaitasunarekin egin behar dela, eta bai hausnarketa hori, bai ustezko erregulazio berri bat denbora zehaztugabeen luzatzeko aukera zegoela, onartu da neurririk egokiena erreferentziazko arauan ezartzeko luzamendu bat hartzea zela, arau horren arabera behin betiko erresoluzio bat onartzen den bitartean, hau da, arau horren aldaketa edo indargabetzea onartzen den bitartean. Beraz, nahiz eta irailaren 10eko 407/2013 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira ingurumen-lankidetzako entitateak eta sortzen baita Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Ingurumen Lankidetzako Entitateen Erregistroa, onartzeko hasierako arrazoia hausnarketa-garai hori dela uste izan, azkenean, arrazoi horren atzean Administrazio Publikoen jardura eraendu behar duten printzipioak daude, Dekretuaren jarduerak fede oneko eta zilegizko konfiantzaren printzipioak bete ditzan. Alde horretatik, neurri horrekin saihestu nahi da administrazio ingurumen-prozeduretako sustatzaileek ingurumen-lankidetzako entitate horiengana jotzeko beharra, baldin eta etorkizunean obligazio horretatik libre geratuko badira.”



Hala ere, administrazioak, hiru urte baino gehiagoan, iragankortasun-egoera bat sortu du, non aipatu eskakizuna ez desagertzeaz gain, zerbitzua entitate-kopuru mugatu baten ematen duen, alegia, Elkargoek, nahiz eta ez den egiaztatu erakunde horiek lagunduko dutela ingurumena babesten, eta zerbitzua gauzatzen duen beste edozer erakunderen orde.

Beraz, ez da beharrezkoa aztertzea zer neurritan zehaztu daitekeen murriztapena lortu nahi den helburuaren proportziozkoa izan dadin.

Hondakinen sortzaileek, izapide bikoitzaren gaineko hausnarketaren garaian, hori sortzen eta ordaintzen jarraitzeaz gain, mailegatzailak murriztuak dituzte. Beraz, administrazio-kargak aurrera jarraitzen du, eta ez da egiaztatu kostuak murriztu direnik; aitzitik, zerbitzu-mailegatzailak murriztu dira soilik.

22. EJK balizko mailegatzaileri publizitatea ematen dien modua, nolana ere **diskriminatzailea da.**

Adierazi den moduan, EJren webgunean soilik jaso dira egiaztapena egin dezaketen zenbait euskal elkargo. EAEkoa ez den (EB osoa) lurralde-eremuetara gaitutako edozer profesionalek eman ahal izango luke zerbitzua egungoa bezalako modu egokian³⁹.

23. Adierazitakoa kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzak beharrezkoak ez diren murriztapenak kendu beharko dizkio lehiari, jarduera ekonomikoari oztupoak ez jartzeko, baldin eta uste bada egiaztapenak premiazkoak direla interes orokorreko helburu bat lortzeko, eta independentzia eta gaitasun maila nahikoa egiaztatu ahal izan duten operadore ekonomiko guztiek zerbitzu horiek eman ditzaketela ikusten bada.

III.- Ondorioak

LEHENENGOA- Jarduera ekonomikoetan aske sartzea bermatzeko, EJK baloratu behar du zer premia dagoen obra handiko hondakinen kudeaketan hondakinak kudeatzeko azken txostena egiaztatzea exijitzeko. Hori premiazkoa dela egiaztatuz gero, erregulazio eraginkor bat egin behar du, erregulazio onaren printzipioak errespetatuz, hau da, ez du oztupo desegokirik ezarri behar zerbitzua emateko eta exijitu behar du zerbitzu horrek ez duela lanen kostua behar ez den beste handitu behar.

³⁹ Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren epaia, 2010eko martxoaren 11koa, gai honekin: C-384/08, Attanasio Group. Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren epaia, 1991ko uztailaren 25ekoa, gai honekin: C-76/90, Sager. Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren epaia, 2011ko urriaren 4koa, gai honekin: C-403/08, Football Association Premier League.



BIGARRENA- Hondakinen kudeaketaren azken txostena egiaztatzea exijitzen den bitartean eta erregulazioa aldatzen denera arte, zerbitzu horiek emateko aukera Elkargoei erreserbatzeak lehiakortasun-arazoak sortzen ditu, administrazioak saihestu behar dituen, eta ondorioz, gomendatzen da administrazioak baliabide propioekin egitea egiaztatpena.

HIRUGARRENA- Aurreko ondorioa ezin bada bete, administrazioak bermatu behar du erregulazioa hitzez hitz betetzen dela, eta ahalbidetu behar du gaitasuna duen profesional orok zerbitzu hori ematea. Egiaztatutako ILE bati edo bere gaitasuna eta independentzia egiaztatzen duen beste profesional bati ezin zaio zerbitzua ematea galarazi.



Eranskina

- Kantabriako Autonomia Erkidegoa: 72/2010 Errege Dekretua, urriaren 28koa, Kantabriako Autonomia Erkidegoan eraikuntza eta eraisketako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena. Kantabriako Aldizkari Ofiziala, 214 zk., 2010eko azaroaren 8koa:
- Errioxako Autonomia Erkidegoa: 44/2014 Dekretua, urriaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baitira hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-jarduerak eta horien erregistroa. Errioxako BO, 131. zk., 2014ko urriaren 22koa.
- Gaztela-Mantxa: 189/2005 Dekretua, abenduaren 13koa, zeinaren bidez ohartzen baita Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak Kudeatzeko Gaztela-Matxako Plana. Gaztela-Mantxako Egunkari Ofiziala, 253. zk., 2005eko abenduaren 16a.
- Nafarroako Foru Erkidegoa: 23/2011 Errege Dekretua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan eraikuntza eta eraisketako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen baita. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 69. zk., 2011ko apirilaren 8a.
- Extremadurako Autonomia Erkidegoa: 20/2011 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, zeinak ezartzen baitu Extremadurako Autonomia Erkidegoan eraikuntza eta eraisketako hondakinen sorrera, jabegoa eta kudeaketaren inguruko erregimen juridikoa. Extremadurako Egunkari Ofiziala, 43. zk., 2011ko martxoaren 3a.
- Kanarietako Autonomia Erkidegoa: 1/1999 Legea, urtarrilaren 29koa, Kanarietako hondakinen ingurukoa. BO de Canarias, 16. zk., 1999ko otsailaren 5a; 112/2004 Dekretua, uztailaren 29koa, zeinak erregulatzen baitu hondakinak kudeatzeko baimenak emateko prozedura eta baldintzak, eta Kanarietako Hondakinen Kudeatzaileen Erregistroa sortzen baitu. BO de Canarias, 158. zk., 2004ko abuztuaren 17koa.
- Valentziako Autonomia Erkidegoa: 10/00 Legea, Hondakinen ingurukoa, Valentziako Erkidegoa. DO Generalitat Valenciana, 3898. zk., 2000ko abenduaren 15ekoa; 200/2004 Dekretua, urriaren 1ekoa, Consell de la Generalitatekoa, zeinaren bidez hondakin geldo egokiak arautzen baitira zaharberitze-, egokitzapen- eta betegarri-obrak edo eraikuntza-helburuak dituzten obrak. Valentziako Egunkari Ofiziala, 4860. zk., 2004ko urriaren 11koa.
- Madrilgo Autonomia Erkidegoa: 5/2003 Legea, martxoaren 20koa, Madrilgo hondakinen ingurukoa. Madrilgo Erkidegoko Aldizkari Ofiziala, 76. zk., 2003ko martxoaren 31koa; 2726/2009 Agindua, uztailaren 16koa, Ingurumen, etxebizitza eta lurralde antolamenduaren kontseilaritzakoa, zeinaren bidez arautzen baita eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa Madrilgo Erkidegoan. Madrilgo Erkidegoko Aldizkari Ofiziala, 186. zk., 2009ko abuztuaren 7a.
- Andaluziako Autonomia Erkidegoa: 7/2007 Legea, uztailaren 9koa, Andaluziako Ingurumen Kalitatea kudeatzeari buruzkoa. Andaluziako Aldizkari Ofiziala, 143. zk., 2007ko uztailaren 20koa; 73/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, zeinak onartzen baitu Andaluziako Hondakinen Erregelamendua. Andaluziako Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2012ko apirilaren 26koa; 397/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, Andaluziako hondakin ez arriskutsuen Lurraldeko Zuzendaritza 2010-2019 Plana. Andaluziako Aldizkari Ofiziala, 231. zk., 2010eko azaroaren 25ekoa.
- Galiziako Autonomia Erkidegoa: 10/2008 Legea, azaroaren 3koa, Galiziako hondakinen ingurukoa. D.O. de Galicia, 224. zk., 2008ko azaroaren 18koa; 174/2005 Dekretua, ekainaren 9koa, zeinaren bidez arautzen baita hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko erregimen juridikoa eta Galiziako Hondakinen Sortzaileen eta Kudeatzaileen Erregistro Orokorra. Galiziako Egunkari Ofiziala, 124. zk., 2005eko ekainaren 29a; 59/2009 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinak hondakinen trazabilitatea arautzen duen. Galiziako Egunkari Ofiziala, 57. zk., 2009ko martxoaren 24a.
- Kataluniako Autonomia Erkidegoa: 1/2009 Legegintzako Dekretua, uztailaren 21ekoa, Hondakinen Legearen testu bategina onesten duena. DO Generalitat de Catalunya, 5430. zk., 2009ko uztailaren 28koa; 89/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, zeinak onartzen baitu Kataluniako eraikuntza-



hondakinak kudeatzeko programa (PROGROC), eta arautzen baitu eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa, eta eraikuntza-hondakinak kontrolatuta uztearen inguruko kanona. Kataluniako Egunkari Ofiziala, 5664. zk., 2010ko uztailaren 6a.

- Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa: 4/2009 Legea, Murtziako Eskualdearen Ingurumen Babes Integratuaren ingurukoa. BO. de la Región de Murcia, 116. zk., 2009ko maiatzaren 22koa; 48/2003 Dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez onartzen baita Murtziako Eskualdearen Hiri Hondakinen eta Hondakin ez arriskutsuen Plana. BO. de la Región de Murcia, Murtziako Eskualdearen 125. zk., 2003ko ekainaren 2koa.

- Aragoiko Autonomia Erkidegoa: 11/2014 Legea, abenduaren 4koa, Aragoiko Ingurunea Prebenitzeari eta Babesteari buruzkoa. Aragoiko Aldizkari Ofiziala, 241. zk., 2014ko abenduaren 10ekoa. 262/2006 Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez onartzen baita Aragoiko Autonomia Erkidegoko eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpenaren, jabetzaren eta kudeaketaren erregelamendua, eta etxeko eraikuntzen eta konponketen obra txikietakoak ez diren obra-hondakinak ezabatzeko eta balioztatzeke zerbitzu publikoaren erregimen juridikoa. Aragoiko Aldizkari Ofiziala, 1. zk., 2007ko urtarrilaren 3a. 117/2009, Dekretua, ekainaren 23koa, Aragoiko Gobernuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Aragoiko Gobernuaren abenduaren 27ko 262/2006 Dekretua, zeinak onartzen baititu Autonomia Erkidegoko eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpenaren, jabetzaren eta kudeaketaren erregelamendua, eta etxeko eraikuntzen eta konponketen obra txikietakoak ez diren obra-hondakinak ezabatzeko eta balioztatzeke zerbitzu publikoaren erregimen juridikoa. Aragoizko Aldizkari Ofiziala, 127. zk., 2009ko uztailaren 3koa.

- Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa: 1/2015 Legegintzako Dekretua, azaroaren 12koa, zeinak onartzen baitu Gaztela eta Leongo Ingurumena Prebenitzeko Legearen testu bategina. Gaztela eta Leongo Aldizkari Ofiziala, 220. zk., 2015eko azaroaren 13koa; 11/2014 Dekretua, martxoaren 20koa, zeinaren bidez onartzen baita «Gaztela eta Leongo Hondakinen Plan Integrala» izeneko Sektore Eremuko Eskualde Plana. Gaztela eta Leongo Aldizkari Ofiziala, 57. zk., 2014ko martxoaren 24a.